

EGUNEROKOTIK BILDUTA



VII. JAUTARKOL OLERKI SARIA
LEHENENGO SARIA: Asier Sarasola
Etxezarreta

NONGOA: Lezo
LANAREN IZENBURUA: “EGUNEROKOTIK
BILDUTA”

FLOTAGAILU HONDORATUAK

norbaiten beharrak
norbaiten erabileraren aurpegia du ispiluan
esklabutza bikiak beldurrak izutzeko
onartu hitzartu sinatu
antiharreman fin
ilargi beteak hodeiek hertsitako gauean
itsasoan murgiltzea aterkia irikita



AMETS BAKAR KAMUTSAK

alditan harri eta hotz izaten
 neguko uharte metafora
 isolaturik
 aldentzen
 uhandreak agian bila
 bila agian uhandreak
 ilunik begiak sehaska-kanta baten kulunkan
 abandonuzko hitzak eskifaiarentzat
 ekipaia abandonatuak lasta bailiren
 neguko uharte bat nora ez
 inguraturik kez
 uhartearen hegitik soilik ikusten den kea
 erregearen janzki gardena alegia
 han ari du euriak denbora
 aspaldi ez bezala
 nostalgien maindirea lehortzen jarrita legoke
 iraganaren ardo pozoitsua edanez
 oraindik iragana
 itsasoa labirinto bat bezala harilkatzen
 ez-lekuaren korapiloak ugaltzen
 uharteak uzkuratzen
 bere baitatik bere baitara
 zulo beltz bat fisika
 eta irtenbidearen bestaldea non dago
 burkoari garraxika
 iratzargailu bat bezala



LOA TAMAL LOA

goizalben erauzian atxilo
arratsen ezarian adio
hoa tamal hoa
edo egutegian zenbakiak zitroi urez idatzirik

7:00 A.M.

zain ariak lau egonarri
tren atzortuak
bidaiari aztoratuak
higi mugi eta bereziki antonimoak
biberoi herdoil edabe egarri
eta geltokietan itzulera txartelen salmenta

ANITZ ESNA BAT

norbaiten beharrak
norberaren aurpegia du ispiluan
collage mugagabea betaurreko lainoetan
eten itsatsi ulertezin gida
pauso jausi harpe ahul
horma ganbaran oihalki jostuna
gaztelu orbeletan loreen gosea

ISPILUKO HORI

norberaren beharrak
nagiak atera aurpegia du ispiluan
egunsenti zirriborroen soslaia
oharkabean pausatu ikatz berantiarrak
aldarrien erantzun biderkatuak
eguraldi barearen iragarpena
gaur-begiak hondartza tropikalak ostereta-barrak

